



LAGen BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONESPENARI DAGOKIONEZ AURKEZTUTAKO ALEGAZIOARI EMANDAKO ERANTZUNA

CONTESTACIÓN A LA ALEGACIÓN PRESENTADA A LA APROBACIÓN INICIAL DE LA REVISIÓN DE LAS DOT

Alegazio zenbakia:

46

Alegación nº:

Nork aurkeztu du:

Diputación Foral de Gipuzkoa. Dirección General de Medio Ambiente.

Presentada por:

Aurkezte-data:

18 de junio de 2018

Fecha de presentación:

Ezer baino lehen, eskerrik asko aurkeztutako alegazioarengatik, sentsibiltate guztiak jaso eta ahalik eta adostasun handiena lortzen duen EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen dokumentu bat eskuratzeko zure ahalegin eta interesari dagokienez.

Cabe iniciar agradeciendo la alegación presentada en lo que supone un esfuerzo y un interés de cara a disponer de un documento de Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV que recoja todas las sensibilidades y aúne el máximo consenso.

A. Egindako alegazioen eduki laburbildua eta horien balorazioa.

A. Contenido resumido de las aportaciones y contestación a las mismas.

A. Hirigintza-planak berrikusteko izapidearen administrazio arteko integrazio arloko Gidalerroei dagokienez.

1. Hasierako gogoeta.

Aplikazio Arauetako 38. artikuluan jasotako zenbait Gidalerroekin erabateko desadostasuna erakusten da, hirigintza-planak berrikusteko izapidearen administrazio arteko integrazio arloko Gidalerroekin, izan ere, ingurumena ebaluatzeko araudiak ingurumen arloko organoari esleitzen dizkion funtzioak garatzeko ahalmenean eragin zuzena dutela ulertuta. Zehazki, 4. ataleko edukia aipatzen da, lurzoruaren sailkapen eta kalifikazioarekin lotuta; atal hori ezabatzeko eskatzen delarik.

Balorazioa:

Jasotako alegazioak aztertu ondotik, 38. artikulua horrela idatzita gera dadin proposatzen da:

A. Respecto a las Directrices en materia de integración interadministrativa en la tramitación de la revisión de los planes urbanísticos.

1. Consideración inicial.

Se manifiesta el total desacuerdo con parte de las Directrices recogidas en el artículo 38 de las Normas de aplicación, Directrices en materia de integración interadministrativa en la tramitación de la revisión de los planes urbanísticos, por considerarse que afectan directamente a la capacidad de desarrollar las funciones que la normativa de evaluación ambiental asigna al órgano ambiental. Se hace referencia en particular al contenido del apartado 4, en relación con la valoración de la clasificación o calificación del suelo; solicitándose la eliminación de dicho apartado.

Valoración:

De acuerdo con el estudio de las alegaciones recibidas se propone que el artículo 38 tenga la siguiente redacción:

38. artikulua. *Hirigintza-planak tramitatzean administrazioa integratzearen arloko gidalerroak*

1. *Hirigintza-plangintzaren tramitazio-prozesuetan esku hartuko duten administrazioek ezingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) ezartzen ez den beste izapiderik onartu, onarpenerako prozedurak atzeratzea ekidite aldera.*

2. *Ingurumen arloko ebaluazio-prozeduraren izapideak eta planaren funtsezko prozeduraren izapideak beteko dira aldi berean, izapidetzearen epeak hobetze aldera.*

3. *Administrazioen arteko lana eta koordinazioa errazteko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak honakoak egingo ditu:*

a) *Plan orokorraren moldatzea aztertzea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira.*

b) *Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta administrazio zentralako sailek aurkeztutako txosten sektorialak dokumentu bakarrean biltzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoari lotutako ingurumen-organoen txostenak barne, igortzen diren kasuetan, koherentzia global bat bermatuz.*

4. *Ingurumen-organismoak ebaluatuko du, legedi aplikagarriaren markoaren barnean, plan orokorrean proposatutako ingurumeneko aspektuen integratzea, berariaz azpimarratuz bere eskuduntzako gaiak eta ingurumenaren ikuspuntutik garrantzia justifikatua dutenak.*

5. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten tekniko bat sortzea sustatuko du, non administrazioarteko bateratze maila aztertuko den lurralde-plangintzak hirigintza-plangintzarekin duen koordinazioko gidalerroen aplikazioan.*

2. Ingurumen ebaluazio estrategikoa behar duten planei eta horietako aldaketei dagokienez.

Indarreko legerian aldaketaren bat egitea planteatzen ote den argitu dadila eskatzen da, 38. artikuluko 3. atalean zera gomendatzen denean: “Xehetasunezko antolamenduaren plangintza orokorraren balizko aldaketak tipifikatzea edo ingurumen arloko ebaluazio estrategikoa eskatzen ez duten hiri-lurzoruaren plan berezietan edo plan partzialetan.

Artículo 38. *Directrices en materia de integración interadministrativa en la tramitación de la revisión de los Planes urbanísticos*

1. *Las Administraciones que intervengan en los procesos de tramitación del planeamiento urbanístico no podrán exigir más trámites que los establecidos en la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, con objeto de evitar la dilación de los procedimientos de aprobación.*

2. *Se cumplirán simultáneamente los trámites del procedimiento de evaluación ambiental con los trámites del procedimiento sustantivo del plan, con objeto de mejorar los plazos de su tramitación.*

3. *Al objeto de facilitar la labor de coordinación entre Administraciones, el informe vinculante de la COTPV:*

a) *Analizará la acomodación del plan general conforme lo previsto en el artículo 91.2 de la ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo.*

b) *Integrará, en un único documento, los informes sectoriales presentados por los Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Administración Central, incluidos los informes del órgano ambiental relacionados con la evaluación ambiental estratégica en los supuestos en los que se emitan, garantizando su coherencia global.*

4. *El órgano ambiental evaluará en el marco de la legalidad aplicable, la integración de los aspectos ambientales en la propuesta de plan general, incidiendo, exclusivamente, en cuestiones de su competencia y de justificada relevancia ambiental.*

5. *La COTPV promoverá la creación de una ponencia técnica en la que se analice el grado de integración interadministrativa en la aplicación de las directrices de coordinación del planeamiento territorial con el planeamiento urbanístico.*

2. En relación con los planes y sus modificaciones que deben someterse a evaluación ambiental estratégica.

Se solicita que se clarifique si se está planteando una modificación de la legislación vigente cuando en el apartado 3 del artículo 38 se recomienda: “Tipificar los supuestos de modificación de planeamiento general de ordenación pormenorizada o los supuestos de planes especiales en suelo urbano o planes parciales en que no se requiere evaluación ambiental estratégica.

Balorazioa:

Gorago ikusi ahal izan den moduan, 38. artikuluari emandako idazketa berrian aipagai den manua ezabatu egin da.

B. Ingurune fisikoaren antolamenduari dagokionez.**3. Azpiegitura berdea eta korridore ekologikoak.**

Aurkeztutako idatzian urrats handizat hartzen da LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuan korridore ekologikoak lurraldearen antolamenduan txertatzearen garrantzia aitortu izana; haatik, neurri horrekin batera plangintza estrategiko bat, erabilera eta jardueren araubide bat eta horiek modu aktiboan kudeatzeko beste bat gaineratzearen garrantzia adierazten da. Era berean, funtsezko korridore estrategikoak zedarritu eta planifikatzeko esparrua LAG gidalerroetan bertan definitu beharko litzatekeela uste da, eta horien antolamendua Natura Baliabideak Antolatzeko Plan baten bidez edo azpiegitura berdeko Arloko Lurralde Plan baten bitartez jorratu beharko litzatekeela.

Bestalde, azpiegitura berdearen kontzeptuari buruz nolabaiteko nahasmena dagoela uste da, eta landa-bideak, bide berdeak, bulebarrak eta bidegorriak ez direla ekosistema-zerbitzuak eta ez direla azpiegitura berdearen barnean sartzen Europar Batzordeak hura definitzen duen eran; LAG gidalerroetan alderdi hori argitu egin beharko litzatekeela adieraziz.

Balorazioa:

Dokumentuak adierazten duen moduan (4.2. atala, azpiegitura berdea eta ekosistemetako zerbitzuak), kontzeptuak lurzoruaren erabileraren ikuspuntu integratu bat ahalbidetzen du, lurraldearen funtzionamendua ulertzea bilatuz naturak ematen dizkigun zerbitzuen bidez. Horrenbestez, lurraldearen plangintzatik sartzen den kontzeptu bat da, haren bidez eskala ugartan gara dadin, eta babestutako eremutik harago. Horrenbestez, azpiegitura berdearen premia partekatzen da, nahiz eta horrek ez lukeen gaineratu beharko izapide gehiagorik, ezta tresna berriak betetzeko premia ere, daudenak egokituz hura garatzeko.

Bestalde, hura osatzen duten elementuei dagokienez, argi utzi behar da elementu bat ez dela azpiegitura berdeko parte bere

Valoración:

Como ha podido verse más arriba en la nueva redacción otorgada al artículo 38 el precepto cuestionado ha sido suprimido.

B. Respecto a la ordenación del medio físico.**3. La infraestructura verde y los corredores ecológicos.**

En el escrito presentado se valora como un gran paso que el documento de Revisión de las DOT haya reconocido la importancia de la integración de los corredores ecológicos en la ordenación territorial; señalándose no obstante la importancia de que dicha medida se acompañe de una planificación estratégica, de una regulación de usos y actividades y de una gestión activa de los mismos. Igualmente se considera que el marco para la delimitación y planificación de los corredores estratégicos fundamentales debería definirse desde las propias DOT y que su ordenación debería acometerse a través de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales o de un PTS de infraestructura verde.

Se considera por otro lado que existe cierta confusión respecto al concepto de infraestructura verde y que los caminos rurales, las vías verdes, bulevares y bidegorris no proporcionan servicios ecosistémicos y no forman parte de la infraestructura verde tal como la define la Comisión Europea; señalándose que las DOT deberían aclarar este aspecto.

Valoración:

Tal y como señala el documento (apartado 4.2 infraestructura verde y servicios de los ecosistemas) el concepto permite un enfoque más integrado del uso del suelo, buscando una comprensión del funcionamiento del territorio a través de los servicios que nos proporciona la naturaleza. Por lo tanto es un concepto que se introduce desde la planificación territorial para ser desarrollado por ésta en varias escalas, y más allá del espacio protegido. Se comparte por tanto la necesidad de una planificación de la infraestructura verde, si bien ésta no debería añadir nuevas tramitaciones ni la necesidad de cumplir nuevos instrumentos, sino adaptar lo que ya existe para su desarrollo.

Por otra parte, en relación a los elementos que la componen, se debe de dejar claro

izendapenagatik, (alegazioan adierazten dena partekatuz) baizik eta zerbitzuak emateko bere ahalmenagatik, aniztasun edo kopuruan. Horri dagokionez, elementuak balioetsi egin behar dira, azpiegitura berdean sartu ala ez erabakitzeko, daukaten izendapen zehatza gorabehera; ildo horretatik, dokumentuan ez da bidegorriei buruzko aipamenik ikusi azpiegitura berdeko parte izateko proposamen gisa.

4. Ingurumena babesteko irudiak bateratzea

Arauetako 4.3. artikulua zehaztasun gehiagoz idaztea iradokitzen da. Artikulu horrek batura babesteko irudiak bateratzeari egiten dio erreferentzia, izan ere, erabilitako idazketarekin badirudi espazio beraren gainean babeserako irudi ezberdinak ez egoteko asmoa dagoela; Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuko 18. artikuluekin bat etorritz, ordea, egin beharko litzatekeena dokumentu bakarrean aplikagarri diren araubide ezberdinak bateratzea da, horiekin guztiekin koherente izango den bat osatuz.

Balorazioa:

Egindako proposamenari aldeko balioespena egiten zaio. Horrenbestez, Arauetako Gidalerroak azpiegitura berde eta ekosistemetako zerbitzuen arloan izeneko 4. artikuluko 3.a) atalean honako zuzenketa sartuko da:

Egungo testua:

3. Horretarako, irizpide hauek hartu beharko dira aintzat:

a) Babes naturaleko figura guztiak bateratzea, espazio bakar bati babes-tresna bakar bat egokitze moduan.

Proposatutako testu berria:

3. Horretarako, irizpide hauek hartu beharko dira aintzat:

a) Natura-gune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, espazioaren planifikazioa osatuko duen dokumentu bakarrean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen

que un elemento no pertenece a la infraestructura verde por cómo se denomine, sino que (compartiendo lo que se señala por la alegación) lo ha de ser por su capacidad de aportar servicios, en variedad o cantidad. En este sentido se han de valorar los elementos para incluirlos o no en la infraestructura verde, más allá de la denominación concreta que tengan; en este sentido, no se ha observado en el documento una referencia a los bidegorris como propuesta para formar parte de la infraestructura verde.

4. Unificación de las figuras de protección ambiental.

Se sugiere dotar de una redacción más precisa al artículo 4.3 de las Normas, que hace referencia a la unificación de las figuras de protección natural, ya que con la redacción utilizada parece que se pretende que sobre un espacio no puedan recaer figuras de protección diferentes; cuando, en concordancia con el artículo 18 del Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el T.R. de la Ley de conservación de la Naturaleza del País Vasco, lo que se debería es unificar en un único documento la integración de los diferentes regímenes aplicables formando un todo coherente.

Valoración:

Se valora favorablemente la propuesta efectuada, por lo que en el apartado 3.a) del Artículo 4. Directrices en materia de infraestructura verde y servicios de los ecosistemas de las Normas será introducida la siguiente corrección:

Texto actual:

“3. Para ello deberán tenerse en cuenta los siguientes criterios:

a) Unificar las figuras de protección natural, de forma que sobre un único espacio recaiga un sólo instrumento de protección”

Nuevo texto propuesto:

“3. Para ello deberán tenerse en cuenta los siguientes criterios:

a) En caso de solaparse en un mismo lugar distintas figuras de espacios protegidos, las normas reguladoras de los mismos así como los mecanismos de planificación deberán ser coordinados para unificarse en un único documento que integre la planificación

arabideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

del espacio, al objeto de que los diferentes regímenes aplicables en función de cada categoría conformen un todo coherente”.

5. Antolaketa kategoriak.

Ezarritako antolaketen kategoriak aplikatzeko koherentzia handiagoa bermatzeko mekanismoak azter daitezela eta lurzoruaren erabileraren deierarekin lotura gehiago izan dezatela iradokitzen da; bereziki, LPP eta ALP planetan aplikatzean. Adibide gisa, horri buruz adierazten da kategorია batzuen aplikazioari buruz hainbat interpretazioa daudela, esate baterako, “Babes berezia” edo “Ingurumen hobekuntza”.

Balorazioa:

LAG gidalerroen Berrikuspena ezartzeko kategorien helburua lurraldearen plangintzan Lurzoru Urbanizaezinarekin lotuta ezartzen den antolamendu-ereduak nahiz, eskumenen arabera, hirigintza-plangintzari dagokionak sostengu gisa hartuko dituen oinarriak zehaztea da.

Horri dagokionez, gogoratu behar da Lurralde Plan Partzialetan barneratu behar diren zehaztapenak bat etorri behar direla Euskadiko Lurraldea Antolatzeko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko 12. artikuluan ezarritakoaren arabera horiei dagozkien eskumenekin- Aipatu artikuluko 2. atalean zehazten denez gainera, “Aurreko atalean aipatzen diren zehaztapenen eraketa, edozein kasutan, eskumenen esparrua errespetatuz egingo da, Tokiko Erakundeak bermatuz”.

Horren ondorioz, Berrikuspenerako dokumentuak Lurzoru Urbanizaezinari begira ezartzen dituen antolamendurako gidalerroek nahiz aurrekoak aplikatuz LAP planetan ezarriko direnek, edozein kasutan, hirigintza-plangintzan antolamendurako kategorία bakoitzaren azken mugaketa eta dagokien erabileren arabidea finkatzeko dagoen eskumena errespetatu behar dute; gainera, halaxe jasotzen da Arauetako 3. artikuluan, 4.a) 3 atalaren barnean.

5. Categorías de ordenación.

Se sugiere que se estudien mecanismos para garantizar una mayor coherencia en la aplicación de las categorías de ordenación establecida y que se ajusten en mayor medida a la vocación de uso del suelo; en especial, en su aplicación en los PTP y los PTS. Como ejemplo, se menciona al respecto que existen interpretaciones diversas sobre la aplicación de algunas categorías, como las de “Especial protección” o “Mejora ambiental”.

Valoración:

Los categorías que establece la Revisión de las DOT tienen como fin la definición de las bases sobre las que se fundamentará tanto el modelo de ordenación que en relación con el Suelo No Urbanizable establezca el planeamiento territorial, como del que corresponda según sus competencias al planeamiento urbanístico.

En este sentido, debe recordarse que las determinaciones que deben contener los Planes Territoriales Parciales deben estar en consonancia con las competencias que les corresponden según lo establecido en el artículo 12 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco; en cuyo apartado 2 se especifica además que “*La formulación de las determinaciones a que se refiere el apartado anterior se realizará, en todo caso, respetando el ámbito competencial garantizado a las Entidades Locales*”.

Como consecuencia, tanto las directrices de ordenación que para el Suelo No Urbanizable establece el documento de Revisión, como aquellas que en aplicación de las anteriores fijarán los PTP deberán en cualquier caso respetar la potestad del planeamiento urbanístico para establecer la delimitación final de cada categoría de ordenación y el correspondiente régimen de uso que les corresponde; tal como se recoge además en el Artículo 3 de las Normas, dentro del apartado 4.a) 3 del mismo.

6. LAP planetan gaineratzeko landa-eremu eta natura-eremuak hobetzeko ekintza positiboko programa eta neurriei dagokienez.

Gogoeta bat egitea ezinbestekotzat jotzen da, gidalerro horien betetze-maila hobetze aldera, esku-hartzeak betetzeko jarraipenerako plan bat zehaztearekin batera.

Balorazioa:

Aurkeztutako alegazioan adierazitakoa partekatzen da, bertan adierazten baita beti positibotzat joko dela LPP planetan ezartzen diren ekintza positiboko programa eta neurrien betetze-mailaren jarraipenean edozein hobekuntza planteatzea. Horri dagokionez, berrikusteko dokumentuan modu nabarian aipatzen da adierazleek planen garapenean gizakiaren ekintza neurtu eta jarraitzeko elementu gisa duten zeregina. Haatik, uste da jarraipen zehatzetarako planak ezarri eta erregulatzeko aukera, atal honetan jorratzen den gaiarekin nahiz Gidalerroen xede den beste edozeinekin lotuta egon daitezkeenak, LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuari dagokionetik harago doan zeregina izango zatekeela.

C. Hiri-habitataren antolamenduari dagokionez.

7. Eraldaketa-ardatzak

Egokitatzat jotzen da espazio lineal horien plangintza egiteko ideia. Haatik, horiek antolatzeko proposamenetan ingurumena ebaluatzeko dagokion estrategia barneratzeko premia adierazten da.

Adierazten denez, LAG gidalerroetan Ardatzetan planteatutako esku-hartzeak eragin ditzaketen ingurumen arloko faktoreetarako lehen hurbilketa bat egin beharko litzateke, honakoa aintzatetsi beharko litzatekeela adieraziz: nekazaritzako lurzoru onenak mantentzea, hiri-eremuetan ingurumen arloko kalitatea; hainbat alderdi kontuan izanik, besteak beste, soinu-baldintzak, kutsadura, etab.

Balorazioa:

LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuan Eraldaketa-ardatzak funtsean izaera lineala duten lurralde arloko esparru gisa

6. En relación con los programas y medidas de acción positiva de mejora de espacios rurales y naturales a incorporar en los PTP.

Se considera que se requiere una reflexión con vistas a poder mejorar el grado de cumplimiento de dichas directrices, así como la definición de un plan de seguimiento del cumplimiento de las actuaciones.

Valoración:

Se coincide con lo señalado en la aportación presentada en lo que se refiere a que siempre será considerado como positivo el planteamiento de cualquier mejora en el seguimiento del grado de cumplimiento de los programas y medidas de acción positiva que establezcan los PTP. En este sentido el documento de revisión incide ampliamente en el papel de los Indicadores como elemento de medición y seguimiento de la acción del ser humano en desarrollo de los planes. No obstante, se estima que el posible establecimiento y regulación de planes de seguimiento concretos que podrían estar vinculados tanto a la materia tratada en este apartado, como a cualquier otra objeto de las Directrices, constituiría un cometido que excede del que le corresponde a este documento de Revisión de las DOT.

C. Respecto a la ordenación del hábitat urbano.

7. Ejes de transformación.

Se considera adecuada la idea de planificar estos espacios lineales, señalando sin embargo la necesidad de que las propuestas para su ordenación cuenten con la correspondiente evaluación ambiental estratégica.

Se indica que desde las DOT se debería realizar una primera aproximación a los factores ambientales que pueden conllevar las actuaciones planteadas en los Ejes, indicándose que se deberían considerar los siguientes: la conservación de los mejores suelos agrarios, la calidad ambiental de las zonas urbanas; teniendo en cuenta aspectos como las condiciones acústicas, la contaminación etc.

Valoración:

Los Ejes de Transformación se plantean en la Revisión de las DOT como ámbitos territoriales de carácter fundamentalmente

planteatzen dira, non, mugikortasunarekin, hiri-plangintzarekin, zuzkidurekin edo ingurumenarekin lotuta eragiten dieten arazoek izaera orokor eta anitzaren ondorioz, horien antolamenduan horietan sartzen den zati bakoitzaren tokiko ikuspegia gainditu egin behar dela uste baita; azterketa eta balioespen sakonago bat beharrezkoa delarik.

Ardatz horien definizio orokorra eta horietako bakoitzean barneratu beharreko helburu eta gidalerroen azterketa dagoeneko burutu den lanketa da, dokumentuari dagokion eskalan, hasieran onartutako Berrikuspenean. Horrez gain, adierazi behar da helburu eta gidalerro horiek betetzeko aintzat hartu behar direla aipatutako Ardatz bakoitzean sartzen den lurraldean eragina izan dezaketen ingurumen arloko faktore ezberdinak. Horri dagokionez, Ardatz horietarako Berrikuspenean orokorki ezartzen diren helburuen artean eragindako natura-eremuak edo hiri-eremuak ingurumenaren eta paisaiaren kalitateari soil hobetzearena aipatzen da.

Haatik, egokitzen jotzen da Eraldaketa-ardatzetarako ezarritako helburuetara nekazaritzako lurzoru onenak mantentzeko premiari buruzko berariazko aipamen bat gaineratzeko egindako proposamena. Horren ondorioz, hasieran onartutako dokumentuan testu hau gaineratuko da:

I. MEMORIA

6. Hiri-habitat

6.1. Hiri-sistema

3) Eraldaketa-ardatzak

II. Helburuak

5.- Eraldaketa Ardatzen bi aldeetan kokatutako eremu naturalen artean errepidea zeharkatzeko aukera bermatzea, eremu horiek azpiegiturak eta hirigintza-garapenak direla-eta gainezka egitea eragin dezakeen hesi-efektua saihestuta, eta Ardatz osoan dauden espazio-libre eta parkeen hornidurak zainduz eta hobetuz, eta nekazaritza-lurzoru onenen kontserbazioa sustatuz.

lineal en los que, debido al carácter global y diverso de las problemáticas que les afectan en relación con la movilidad, la planificación urbana, las dotaciones, o de índole ambiental, se considera que su ordenación debe superar la visión local de cada una de las partes que se integran en el mismo; requiriendo un análisis y valoración de mayor escala.

La definición global de dichos Ejes y el análisis de los objetivos y directrices a contemplar en cada uno de los mismos es una labor que ya ha sido realizada, a la escala que al documento le corresponde, en la Revisión inicialmente aprobada. Debe señalarse además que el cumplimiento de dichos objetivos y directrices conlleva la consideración de los diversos factores ambientales que pueden afectar al territorio integrado en cada uno de los referidos Ejes. En este sentido, entre los objetivos establecidos en la Revisión con carácter general para dichos Ejes se encuentra el que hace referencia a la mejora de calidad ambiental y paisajística de los espacios naturales o urbanos afectados.

No obstante, se considera oportuna la propuesta realizada en relación con la incorporación a los objetivos establecidos para los Ejes de Transformación de una referencia expresa a la necesaria conservación de los mejores suelos agrarios. Como consecuencia se incluirá el siguiente texto en el documento inicialmente aprobado:

I. MEMORIA

6. Hábitat urbano.

6.1. Sistema urbano.

3) Los Ejes de transformación.

II. Objetivos.

5.- Garantizar la permeabilidad transversal entre los ámbitos naturales situados a ambos lados de los Ejes de Transformación, evitando el efecto barrera que puede ocasionar la colmatación de los mismos por las infraestructuras y los desarrollos urbanísticos; así como preservando y mejorando las dotaciones de espacios libres y parques existentes a lo largo del Eje y promoviendo la conservación de los mejores suelos agrarios.

8. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentua lurzoruaren birgaitze eta berrerabilera bultzatzeari begira asmo handiagokoa izan beharko litzatekeela uste da dauden premiei erantzuteko irtenbide gisa; eta soilik garapen berriak planteatu beharko liratekeela lurzoru ez artifizialdu edo degradatuen gainean kasu jakin batzuetan eta behar bezala justifikatuta.

Adierazten denez, gai honetan ALP plana berrikusteko lehen urratsa Eremu Funtzional bakoitzean dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruak berrerabiltzeko aukeren inguruko inbentario eta diagnosi bat egitea izan beharko litzateke.

Balorazioa:

I Gaiaren Egoera izeneko 6.4. atalaren barnean jarduera ekonomikoko lurzoruarekin lotuta egindako azterketa premisa honetatik abiatzen da:

EAE n industria BPGaren % 24,5 da, eraikuntzaren eta nekazaritzaren aurretik (% 7,8 eta % 0,8, hurrenez hurren), eta zerbitzuen sektorearen atzetik (% 66,9). Horrela, EAEko industria-jarduerak haren ekonomiaren zutabeetako bat izaten jarraitzen du, eta kalitatezko industriaguneak izatea haren lehiakortasunaren oinarrietako bat. Horregatik, adibidez, EAEko hiri-azaleraren guztizkoa hartuta, % 27,87k jarduera ekonomikoetarako lurzoru-kalifikazioa du, Jarduera Ekonomiko gisa (industrial edo zerbitzuetakoa) kalifikatutako lurzoruaren garrantzi handiaren eta tratamendu egokia jaso behar izatearen adierazgarri.

Oinarri horretatik abiatuz, LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuan jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoruarekin lotuta jasotzen diren helburu nahiz gidalerroak dagoeneko artifizialdua dagoen lurzoruaren aprobetxamendua lehenestera bideratzen dira ez bairik gabe, eremu berrien okupazioaren ordezkotzako aukera gisa.

Horri dagokionez, jarduera ekonomiko eta ekipamendu komertzialei dagokienez eredu berrikusteko proposatzen den lehendabizikotik helburua honakoa da:

1.- Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabilioiak bir-gaitu eta berrerabiltzea, eta lankidetzak publiko-pribatuko estrategiak

8. Suelo para actividades económicas.

Se considera que la Revisión de las DOT debería ser más ambiciosa en promover la rehabilitación y reutilización del suelo como principal solución para dar respuesta a las necesidades existentes; y que únicamente se deberían plantear nuevos desarrollos sobre suelos no artificializados o degradados en casos puntuales debidamente justificados

Se señala que el primer paso para la revisión del PTS en la materia debería consistir en la realización de un inventario y diagnóstico de las posibilidades de reutilización de los suelos ya urbanizados en cada una de las Áreas Funcionales.

Valoración:

El análisis efectuado en relación con el suelo de actividades económicas dentro del apartado 6.4. I. Estado de la cuestión parte de la premisa siguiente:

En la CAPV la industria supone el 24,5 % del PIB, por delante de la construcción (7,8%) y la agricultura (0,8%) y por detrás del sector servicios (66,9%). Así, la actividad industrial en el País Vasco sigue siendo uno de los pilares de su economía y la disponibilidad de espacios industriales de calidad constituye una premisa indispensable para su competitividad". Añadiéndose posteriormente: "La existencia de una oferta de suelo amplia y accesible que permita la rápida implantación de empresas es un aspecto clave para la atracción de iniciativas empresariales locales y foráneas.

Partiendo de dicha base, tanto los objetivos, como las directrices recogidas en la Revisión de las DOT en relación con el suelo destinado a actividades económicas se orientan de forma inequívoca a la priorización del aprovechamiento del suelo ya artifizializado, como alternativa a la ocupación de nuevos ámbitos.

En este sentido, el primero de los objetivos que se propone para la revisión del modelo en materia de actividades económica y equipamientos comerciales es el siguiente:

1. Poner en valor el suelo industrial existente, la rehabilitación y la reutilización de los pabellones industriales vacíos y el diseño de

*diseinatzea lurzoru in-dustrialen
urbanizazioaren kontserbazioa
sustatzearren.*

lido beretik, aurreko helburua lortzeko ezartzen den lehendabiziko gidalerroa honakoa da:

1. *Industriarako eremu tradizioaletarako, berritze, birgaitze, eraberritze eta balioztatze estra-tegiak sustatzea, honako gidalerro hauen arabera:*

a) *Gutxiegi erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aprobetxamenduari lehen-tasuna ematea lurzoru berrien okupazioaren aurrean:*

1. *Gutxiegi erabilitako ekonomia-jardueretarako lurzoru kontuan hartzea, landa-eremuko lurralde berri gutxiago kolonizatu behar izateko.*

2. *Erreminta administratibo eta fiskalak diseinatzea jabe industrialen eta udalen ar-teko lankidetzan izan dadin orain arte industria-arloko lurzoru izan direnen mantentze-lanak eta kontserbazioa egiteko.*

Adierazitakoaren ondorioz, Berrikusteko dokumentuan jarduera ekonomikoetarako lurzoruarekin lotuta ezartzen diren jarraibideek dokumentuan bertan ezartzen diren helburuak behar bezala erantzuten dituztela uste da; eredu zehazterakoan oinarritzko baldintzatzaile izaki, eredu hori oinarri gisa baliatuko delarik lurralde-plangintzari nahiz hirigintza-plangintzari begira.

Azkenik, partekatu egiten da, edozein proposamen burutu aurretik Eremu Funtzional bakoitzean dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruak berrerabiltzeko aukeren ikerketa, balioespena eta diagnosa egiteko premiaren garrantziari buruzko aipamena; eginkizun hori lurraldea edo hirigintza antolatze dagozkion irudiek betetzeko izanik, bakoitzaren eskala eta bakoitzari esleitutako eskumenen arabera.

estrategias de colaboración público-privada para promover la conservación de la urbanización de los suelos industriales.

En la misma línea, la primera directriz que se establece orientada a la consecución del objetivo anterior es la siguiente:

1. *Sobre las áreas industriales tradicionales promover estrategias de renovación, rehabilitación, reforma y puesta en valor de acuerdo con las siguientes directrices:*

a) *Priorizar el aprovechamiento del suelo de actividades económicas infrautilizado ante la ocupación de nuevos suelos:*

1. *Tener en cuenta el suelo de actividades económicas infrautilizado en aras a reducir la colonización de nuevos territorios rurales.*

2. *Diseñar herramientas administrativas y fiscales para la colaboración entre los propietarios industriales y los ayuntamientos para el mantenimiento y conservación de la urbanización de los suelos tradicionalmente industriales.*

Como consecuencia de lo señalado, se considera que las pautas establecidas en el documento de Revisión en relación con el suelo destinado a actividades económicas dan suficiente respuesta a los objetivos establecidos en el propio documento; constituyendo un condicionante básico en la definición del modelo que servirá de base tanto para el planeamiento territorial como para el urbanístico.

Finalmente, se coincide en la apreciación relativa a la importante necesidad de que se realice un estudio, valoración y diagnóstico de las posibilidades de reutilización de los suelos ya urbanizados existentes en cada una de las Áreas Funcionales, con carácter previo a la elaboración de cualquier propuesta; siendo esta una labor que corresponderá a las correspondientes figuras de ordenación territorial o urbanística según la escala y las competencias que cada una de las mismas tenga asignada.

9. Bizitegi-kuantifikazioa.

Aurkeztutako idatzian adierazten denez, LAG

9. Cuantificación residencial.

Se señala en el escrito presentado que la Revisión

gidalerroak Berrikusteko dokumentuan arlo honetan indarreko LAG gidalerroak Aldatzekoan barneratzen diren gidalerroak mantentzen dira (gutxieneko ahalmenarekin lotutako eskakizuna salbuetsita). Horri buruz adierazten da indarrean jarraitzen dutela LAG gidalerroen Aldaketa horren izapidean zehar bere garaian egindako ekarpenak, horiek dokumentura gaineratzeko modukoak direla iritzita.

Balorazioa:

Bizitoegi-kuantifikazioari gagozkiola, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuaren bidez onartu zen EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek Aldatzeko izapidearen ondorioz planteatutako alegazio eta ekarpen guztien erantzuna jadanik balioetsi eta ebatzi zen bere garaian.

Haatik, horri buruz aipatu behar da bere garaian aurkeztutako (2014.09.30) ekarpenean idatzian aipatzen diren alderdietako asko balioetsi, doitu edo aldatu egin direla hasieran onartutako LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuan bizitegi-ahalmena kalkulatzeko erabilitako metodologia.

Horietako lehena kuantifikatzeko irizpideak berrikusteko prozesua LAG gidalerroak berrikusteko osoko prozesu baten bidez burutzeko alegatutako premiari buruzkoa zen, dokumentu honetan burutzen ari dena jakina. Jarraian, bere garaian diagnosi eguneratu bat egiteko premia aipatzen zen, eta formulako zenbait alderdi zuzentzekoa, esate baterako, familiaren batez besteko tamainaren jaitsiera kontuan ez hartzea, bakantze-koefizienteak ezabatzea, bigarren mailako etxebizitza ez aintzatestea eta udalerrri guztietarako 20 etxebizitzako gutxieneko ahalmena ezabatzea.

